

IPARRALDEKO MENDIAK

GIPUZKOA G. 23

Araxes Ibaia



Araxes ibaiak pagadiak eta baso mistoek estaltzen dituzten aldapa handiko hegalen artean sartutako haran bateko paisaia modelatu du mendez mende. Ibaia izan da tradizionalki inguruko biztanleen ekonomia-euskarria: haren uren indarraz baliatzen dira landa-industria txikien motore gisa eta, gainera, bere ubidea Nafarroarekin komunikatzeko bidea zen duela gutxira arte.

Gaur egun, lasaitasuna itzuli da erriberetara eta bertan babesten dira, besteak beste, martin arrantzalea, ur-zozoa eta arriskuan dagoen bisoi europarra.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIK

- Arro hidrografikoa: ibaien ekintzak modelatutako paisaia.
- Ibaiko ekosistema: urari loturiko flora eta fauna.
- Uren kalitatea: goiko ur-lasterraren eta beheko ur-lasterraren arteko konparaketa.
- Uraren energia aprobetxatuz: presak, erretanak eta zentral hidroelektrikoak.
- Arriskuan dagoen Euskal Herriko fauna: bisoi europarraren adibidea.
- Aisialdiko erabilerak: kirol-arrantza, arrantza-esparruak, araudia eta erabilera jasangarria.
- Arriskuan dagoen fauna suspertzea. Izokina suspertzeko programa.
- Hezeguneak eta zohikaztegiak: enklabe hauen garrantzia, flora eta fauna.
- Atlantikoko landazabala: baserria eta honen ingurunea.
- Ekosistemak jasandako eraginak: isurketak, harrobiak, kanpoko espezieak sartzea, gizakiaren presentzia.
- Garraioa: komunikazio-bideen eragina, onera etortzeko trafikoa murriztearen eragina.
- Orexako landa-gunea: historia, arkitektura eta landa-ondarea.